

## **TRANTSIZIO ENERGETIKOARI ETA KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA.**

---

Txosten hau Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak eskatuta egin dugu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikulua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari emandako eskumena baliatuz.

Txostenaren helburua da, batetik, 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan eta Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bitartez onartutako Jarraibideetan ezarritakoa behar bezala aplikatzen dela egiaztatzea, eta, bestetik, gai horiekin loturiko hobekuntzak proposatzea (Jarraibideak, genero-eragina aurretiaz ebaluatzeko, eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko).

Txostena egiteko eskatu zaigun lege-aurreproiektuaren xedea da esparru juridiko egonkor bat ezartzea, EAEn neutraltasun klimatikoa lortzeko, beranduenez ere, 2050ean, eta lurraldearen erresilientzia handitzea klima-aldaketaren aurrean, ekitatea eta elkartasuna bermatuko dituen trantsizio bidezko eta jasangarri, sozial, ekonomiko eta ingurumenekoaren bidez.

Horrenbestez, xedapen orokor bat da, zer-nolako genero-eragina duen ikusteko ebaluatu beharrekoa, lehenengo jarraibidearen 2.1 apartatuan ezarritakoarekin bat etorritz. Horretarako, araua sustatu duen organoak generoaren arabera eraginari buruzko txostena egin du, I. eranskinean zehaztutako baldintzen arabera eta lehenengo jarraibideko 3. eta 4. apartatuetan zehaztutakoarekin bat etorritz.

Hala, egiaztatu du betetzen direla 4/2005 Legean eta generoaren arabera eraginari buruzko txostena egiteko jarraibideetan aurreikusitako izapide formalak, eta edukiari dagokionez, adierazi behar da, berdintasuna sustatzeko helburuei buruzko atalean, txostenak nabarmentzen duenaren arabera, lege-aurreproiektuaren zioen azalpenean esaten da energia-eredu jasangarri baterako trantsizioa bultzatzen duen prozesuak bidezko

trantsizioaren irizpideari jarraituko diola, eta horrek barne hartzen duela genero-aldagaia, trantsizioa ez dadin bihur beste desberdintasun eta bidegabekeria kausa bat. Era berean, esaten da legearen printzipioetako bat dela generoen artean ekitatea egotea, trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko politketan eta jarduketetan.

Generoaren arabeko eraginaren aurretiazko ebaluazioari dagokionez, txostenean ez da sexuaren arabera banakatutako daturik ematen, ezta aztertzen ere; hala ere, ezinbestekoa da datu horiek ematea jarraibideetan eskatzen den egoeraren azterketa egiteko, arauak ondorioak izango dituen esparruan emakumeen eta gizonen egoerari buruzko informazioa banakatuta jasoz. Hori guztia, arauaren aplikazio-esparruan egon daitezkeen sexuaren arabeko aurretiazko desberdintasunak identifikatzeko eta, horren arabera, arauak hautemandako desberdintasunak murrizten edo ezabatzen eta berdintasuna sustatzen lagunduko duen ebaluatzeko.

Alderdi horri dagokionez, adierazi behar da 2012an Europako Parlamentuak Emakumeari eta klima-aldaketari buruzko apirilaren 20ko Ebazpena eman zuela. Hartan, bi gai horien arteko lotura zehazten da, eta Batzordeari eta estatu kideei eskatzen zaie klima-aldaketari buruzko politikak, programak eta proiektuak planifikatu, ezarri eta ebaluatzeko orduan, besteak beste, herrialde bakoitzeko datu espezifikoak biltzeko, sexuaren arabera banakatuta, klima-aldaketak emakumeengan eta gizonengan izan ditzaken ondorio desberdinak ebaluatu eta horiei modu eranginkorrean heldu ahal izateko, bai eta klima-aldaketara egokitzeko gida bat sortzeko, eta emakumeak babestu eta ahaldu ahal izateko politikak zirriborrazteko, klima-aldaketaren ondorioei aurre egiteari begira. Era berean, eskatzen die txerta ditzatela genero-ikuspegia duten estatistikak ingurumenarekin zerikusi duten politika-esparru guztietan, klima-aldaketari dagokion guztian emakumeen eta gizonen egoera orokorraren ebaluazioa hobetzeko<sup>1</sup>.

Baliabideetarako irizpideari buruzko atalari dagokionez, txostenak lege-aurreproiektuaren zenbait artikulua aipatzen ditu (18. art. mugikortasun jasagarria, 35. art. Osasun-sistema, 38. art. Ezagutza eta hezkuntza sustatzea, 40. art. Sentsibilizazioa eta informazio publikoa eta 42. art. Digitalizazioa, ekonomia deskarbonizatzeke), eta ondorioztatzen duenaren

---

<sup>1</sup> [Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2012ko apirilaren 20koa, emakumeei eta klima-aldaketari buruzkoa](#)

arabera, aplikatzen badira, desberdintasunak gutxiago eta txikiagoak izango dira, baina ez du eskaintzen baieztapen hori berretsi dezakeen daturik.

Horri dagokionez, Emakundek egindako *Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioak egiteko gidak* diotenaren arabera, agerikoa da desberdintasunak daudela emakumeen eta gizonen artean ingurumen-baliabideetarako irispidean, esaterako, besteak beste, prestakuntzan, enpleguan, informazioan, mugikortasunean edo osasunean, eta, ondorioz, desberdintasunak daude orobat presentzian eta parte-hartzean. Baiki, lege-aurreproiektuan trantsizio energetikoarekin eta klima-aldaketarekin lotutako zeharkako tresna horiek arautzeak eragin positiboa izango du desberdintasunak gutxiago eta txikiagoak izan daitezzen, betiere artikulua horietan araututako helburuak betetzeko egikaritzen diren neurriak eta ekintzak benetan badira genero-ikuspegia barne hartuta dutenak.

Erabakiak hartzean parte hartzeari dagokionez, txostenak uste du arauak eragin positiboa izango duela, izan ere, neurrietako bat izango da emakumeen eta gizonen arteko presentzia orekatua izatea gobernantza-organoetan, eta emakumeen eta gizonen parte-hartze publikoan berdintasuna egoteko helburua bermatzea. Hala ere, lege-aurreproiektuak arautu asmo duenaren arabera, azpimarratzen dugu beharrezkoa dela aztertzea emakumeek eta gizonen, eta haiek ordezkatzeko dituzten erakundeek, zer-nola parte-hartzen duten araua egiteko eta betetzeko prozesuan, eta trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari buruzko erabakiak hartzerakoan, eta, horretarako, generoaren arabera eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio egiteko jarraibideei heltzea.

Hain zuzen ere, zenbait txostenen emaitzek berretsi egiten dute erabakiak hartzean eta parte-hartzean emakumeen presentzia areagotzeko neurriak hartu behar direla, arlo horretan oreka lortze aldera; izan ere, oro har, emakume gutxiago dago ingurumen-erantzukizuneko postuetan, maila guztietan, baina gehienbat goi-zuzendaritzako postuetan<sup>2</sup>; izan ere, klima-aldaketarekin lotutako ministerio-mailako erabaki-postuetan, eta Europako goi-

---

<sup>2</sup> The Environment and gender index. EGI (UICN, 2013)

mailakoetan<sup>3</sup>, % 25,6 soilik dira emakumeak, eta ingurumenarekin zerikusi duten estatuko enpresetatik % 25,5ean soilik dira emakumeak administrazio-kontseiluko kideen % 40<sup>4</sup>.

Etorkizuneko arauak emakumeei eta gizonei egotzen zaizkien arau sozialak eta balioak gainditu edo aldatzeko proposatzen dituen helburu eta neurriei dagokienez, txostenak horretan ere eragin positiboa iragartzen du. Dena den, berriz ere, ez dira aztertu trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari lotutako arauak eta balioek zer-nolako eragina duten rol tradizionalan, sexuaren arabera lanaren banaketan edo emakumeen eta gizonen jarreretan, ez eta zer-nolako desorekak dauden ere haiei ematen zaien balioan.

Hala, oro har, nahi genuke azpimarratu ezen, generoaren eragina ebaluatu ahal izateko, **ezinbestekoa dela egoera aztertzea, jarraibideetan eskatutakoaren arabera. Horretarako, berezita jaso behar da arauak eragina izango duen alorrean emakumeek duten egoerari eta gizonek duten egoerari buruzko informazioa.** Horren xedea da egon litezkeen sexuaren arabera aurretiko desberdintasun posibleak identifikatzea. Beraz, ingurumen-esparruko material sektorial espezifiko<sup>5</sup> lagungarri izan liteke. Materiala, Generoaren arabera eraginaren txostenak egiteko gidaliburuaren material osagarria da.

Bestalde, balorazioa positiboa da, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, arauaren edukian txertatutako neurriei dagokienez:

- Zioen azalpenean dagoelako jasota emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eta 2. artikuluan printzipio gisa.
- Hizkera sexista ekiditeagatik.
- Parte-hartze publikoan berdintasuna izateren helburua modu aktiboan sustatzen delako.

<sup>3</sup> *Review of the implementation in the EU of area K of the Beijing platform for action* txostena (Genero Berdintasuneko Europako Institutua-EIGE, 2013)

<sup>4</sup> *Generoa eta klima-aldaketa. Egoeraren diagnostiko bat.*

<sup>5</sup> [Ingurumen Gida](#) Material horiek testuinguruan kokatzen dute sektore-eremu jakin bateko emakumeen eta gizonen egoera desberdinaren azterketa, orientazio eta eredu modura; horri esker, honakoa egin daiteke:

- Sektore horretako desberdintasun garrantzitsuenak identifikatu, emakumeen eta gizonen presentziari, baliabideetarako irispideari, parte-hartzeari, eta arau sozialei eta balioei dagokienez.
- Sektore horretako emakumeen eta gizonen berdintasunerako agindu zehatzak ezagutu.

Materialak errazago irakurtzeko eta azkarrago kontsultatu ahal izateko, edukien indizeetatik bertatik nabigatu daiteke.

- Lege-aurreproiektuan aurreikusitako gobernantza-organoak osatuko dituzten pertsonen izendapenean emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatzeagatik.

Lege-aurreproiektu honek aukera paregabea ematen du klima-aldaketa eta berdintasun-politikak erlazionatzeko, eta genero-ikuspegia zeharka txertatzeko klima-politika osoan, politika publikoen lehenetsuneko jarduera-ildoak baita. Horrenbestez, **arauaren edukiari dagokionez**, zenbait gogoeta eta hobekuntza-proposamen egiten ditu:

- Zioen azalpeneko VII. ataleko azken lerrokada berridaztea, generoaren eta aldagaiaren arteko harremana kendu, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren kontzeptu zabalago eta integratzaileago bat erabilita; horrekin, sistematikoki, kontuan hartuko dira emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzera bideratutako helburu eta jarduketa zehatzak txertatuko dira. Honela berridatz liteke lerrokada:

*«Prozesu hori guztia bidezko trantsizioaren irizpideari jarraikiz egin beharko da, eragindako kostuen eta kargen banaketa bidezkoa kontuan hartuta, inor atzean utzi gabe, eta arreta berezia eskainiz sektore ekonomiko, lurralde eta biztanle talde zaurgarrienei, bereziki haurrei, desgaitasunen bat duten pertsoneri eta migratzaileei, eta betiere genero-ikuspegiarekin, trantsizioa ez dadin bihur beste bidegabekeria eta desberdintasun kausa bat».*

- Lege-aurreproiektuaren terminologia Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean erabilitakora egokitzea, «emakumeen eta gizonen berdintasuna» moldea erabiliz «genero-ekitate» beharrian, edo, azken molde horri eustea komenigarritzat jotzen bada, garapenaren eremuan gehiago erabiltzen delako, gutxienez, egoera hori behar bezala azaltzea definizioen eranskinean.
- Halaber, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna printzipio gisa sartzea gomendatzen da, estatuko klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legean jasota dagoen bezala.

- Aldatzea 8. artikulua idatzera. Parte-hartze publikoa, erabakiak hartzean parte-hartzearekin nahastea ekiditeko. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen arabera, berdintasuna bermatzea administrazio publiko guztiek bete beharreko helburua da; parte-hartzeari gagozkiola, administrazio publikoek *bermatu behar dute emakumeek parte-hartze aktiboa eta baldintza berdinetan izango dutela trantsizio energetikoan eta klima-aldaketan.*

Gazteen parte-hartzeari dagokionez, zentzu handiagoa du beste apartatu batean aztertzeak, edo gutxienez, puntu eta jarrai baten ondoren.

- Gogorarazten da arauan jasotako trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko plangintza-tresnei genero-ikuspegiarekin ekin behar zaiela, emakumeengan eta gizonengan duten eragin desberdina kontuan hartuta, desberdintasunak txikiago eta gutxiago izatea bermatzeko.
- Lerrokada bat gehitzea 14. artikulua 1. apartatuari (Ebaluazio- eta jarraipen-sistemak), trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko helburu, programa eta jardueren betetze-maila ebaluatzeko eta horien jarraipena egiteko sistemak eta adierazleek genero-ikuspegia barne hartuko dutela adierazteko.
- Trantsizio energetikoaren jarraibide orokorrei buruzko 15. artikulua g) apartatua gehitzea, energia-efizientziako, energia berriztagarriak ezartzeko eta garraio efiziente eta jasangarriko proiektuak bultzatzeko finantzaketa-bitartekoen eta -tresnen lehentasun horizontaletako bat emakumeen eskubideak direla adierazteko; hau da, programa eta proiektu guztietan kontuan hartzekoak.
- Beste sektore- eta lurralde-politika batzuei buruzko 2. atalean gidalerro orokor bat gehitzea, sektore- eta lurralde-politikek genero-ikuspegia barne hartuko dutela jasoko duena. Horrela, lege-aurreproiektuan berdintasun-eskubidearen aplikazio praktikoa eta eraginkorra bermatuko da ukitzen edo barne hartzen dituen sektore-politiketan: industria, merkataritza eta turismoa, nekazaritza-, abeltzaintza-, basogintza- eta arrantza-jarduerak, lurralde-antolamendua, hirigintza-plangintza eta hiri-berroneratzea, etab.

- Erabaki-organoetan emakumeen eta gizonen presentzia hobetzea beharrezko den neurria da, baina ez nahikoa. Komenigarria da emakumeak animatzea klima-aldaketaren aurkako erantzun politikoa eztabaidatzen den tokiko, autonomia-erkidegoko eta nazioko foro eta ekitaldi guztietan parte hartzera. Bereziki, beharrezkoa da klima-aldaketari buruzko akordio handien erabakiguneetan eta kudeaketa-organoetan emakumeak sartzen jarraitzea. Horretarako, gaikuntzarako, parte hartzeko eta abarrerako laguntzak gaitu beharko lirateke, emakumeen ahotsa entzun dadin, aldaketarako eragile diren aldetik, ingurumen-itunei loturiko agenda politikoan eta haietatik eratorritako neurrietan.

Azkenik, gogora ekarri nahi da Europako Parlamentuak Emakumeari eta Klima Aldaketari buruzko apirilaren 20ko Ebazpenean estatu kideei egindako eskaera, alegia, herrialde bakoitzeko datu espezifikoak biltzeko, sexuaren arabera banakatuta, klima-aldaketak emakumeengan eta gizonengan izan ditzaken ondorio desberdinak ebaluatu eta horiei modu eranginkorrean heldu ahal izateko, bai eta klima-aldaketara egokitzeko gida bat sortzeko, eta emakumeak babestu eta ahaldundu ahal izateko politikak zirriborratzeko, klima-aldaketaren ondorioei aurre egiteari begira. Era berean, eskatzen die txerta ditzatela genero-ikuspegia duten estatistikak ingurumenarekin zerikusi duten politika-esparru guztietan, klima-aldaketari dagokion guztian emakumeen eta gizonen egoera orokorraren ebaluazioa hobetzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilak 19